



UDAL BATZORDEEN BERRI

LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Ekimen sozio-kulturalak (2017/05/19) Hurrengo saioa: 2017/06/02	Maiatzeko irteera	Dena loturik dagoela ziurtatu da	Bidaiaren balorazioa
	Elizako erretaula	Jose Luis Larrañagaren ezezkoaren ondoren ez da berririk	Bai Obispadurekin bai diputazioarekin kontaktatzen saiatu egoeraren berri izan dezagun
	Katilu eguna	Orain artekoa ondo doala ziurtatu da	Azken larunbaterako ideiak jaso dira
	Alegiko festak	Antolakuntzarekin kontaktuan jarri orain arteko diru ekarpenak dutela adierazteko eta behar luketen laguntza eskaini	
	Itsasoko festak	Festa batzorde deialdi irekia luzatu: Maiatzaren 26rako Itsasoko ostatuan arratseko zazpi eta erdietan	
	Ekaineko gazteen kontzertua	Prest omen daude urtero bezala kontzertu bat emateko eta Willis-tarrei ere gonbidapena luzatuko zaie saioan parte izan daitezen	Noiz izango litzatekeen zehaztu. Bi data posible: ekainaren 9 edo 16a. Irakasleari galdetzekotan geratu gara noiz datorkien ondo jakiteko.
	San Juan bezpera	Afaria aurreraxeago antolatuko da. Sorgin dantza apur bat entsaiatzea komenigarria dela uste da, egun bertan hainbeste ez luzatzeko. Entsegu data ekaineko kontzertua ez den beste ostiral arratsean jartzea erabaki da (ekainak 9 edo 16-a, kontzertuaren	Isats erratzak egiten dakien bat topatzen saiatu, erratzak egiteko. Beste dantza bat egiteko aukera ere azaldu da eta gazteak hau sakontzeko elkartzekotan geratu dira.



		arabera).	
	Ukendu eta xaboi tailerrak	Ukendua egiteko tailerra ekainaren 19a data posible bezala aztertu da. Xaboa egiteko tailerra, berriz, ekainaren 20an hasiko litzateke.	Deialdia gauzatu eta luzatu. Trozoko xaboa egin herriko produktuen lotetan sartzeko, opari gisa.
	Korrika		Korrikako balorazioa egin, Maddi Korrikako arduradunarekin

LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Azpiegitura eta ingurumena (2017/05/20) Hurrengo saioa: 2017/06/10	Ekipamendu informatikoa	Lantek-ek martxan jarri ditu ordenagailu berria eta inpresora	Pendiente geratzen dira beste ekipoak eta kableaturen bat
	Konektibitatea	TALAIA, Goiekin kokatutako enpresak, proposamena egingo du uda ondorengorako (antenez transmititzen dute, Usurbetik, baina Segura Irratiarekin Aizelekutik nahi dute erabilpena hitzartu) Bestalde, Movistar posteak aldatzen ari da, itxuraz helburu berarekin.	Labakari Movistarreko kontaktua eskatu. IZFEk zuntz optikoa jarri bitartean, kontsultatuko du bitartean nola konektibitatea lortu.
	Seinalitika	Herrian jarritakoak aztertu dira: puskatuak, oker idatzita daudenak eta falta direnak (15 guztira) eta STOP Iturritan.	Egiten dituen enpresari aparejadoaren bidez helaraziko zaizkie.
	Tabloia eta buzoiak	Uribarko tabloia jarri da. Zozabarron AHTzutoinean jotzen da lekurik egokiena tabloia eta buzoiak jartzeko.	Jarraipen Batzordean aztertuko da. Ontzat ematen bada, postariarekin.



ITSASOKO
UDALA
(GIPUZKOA)

LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Komunikazioa, partaidetza eta gardentasuna (2017/05/23) Hurrengo saioa: 2017/05/30 Deialdi berezia 19:40tan	Web orria	Webgunea doitzen joateko pausoak eman ditugu: menu nagusiaren atalak eta azpi atal gehienak zehaztuta	Herri Batzarrean azalduko da
	Google-maps		Google-eko kontaktu bat bilatzen saiatu (2016-06-06)
	Herri Batzarra	Ostiralean, hilak 26, 19:00etan Herri Batzarrerako deialdia sortzeko elkartu	Maiatzaren 30ean prestatuketa lanak Mankomunidadeei buruzko informazioa azertu herriari azaltzeko eta prozesuari buruzkoak